

2014ko HOBEEKUNTZA PLANA

Otsailean, bigarren urtez segidan 2., Ekoscan ziurtagiria eskuratu genuen auditoria bat egin ondoren. Baina jarduera ez da eteten eta Gizarte eta Komunikazio Zientzien Fakultate iraunkorrako baten alde lanean segitzen dugu. Zentzu horretan, dagoeneko 2014ko Hobekuntza Plana egin dugu, ondoko helburuekin:

- Energia elektrikoaren kontsumoa murriztea.
- Paperaren kontsumoa murriztea eta birziklatutako bulego-materiala erabiltzea.
- Hondakinen bereizketan eta murrizketan jarraitzea.
- Sentsibilizazioa.


Helburu horiek betetzeko, zenbait ekintza egingo dira. Beraien berri emango dizuegu. Finean, bide luzea dugu egiteko eta guztion artean lortzen ari gara..

Fakultateko Kontsumoari buruzko hiruhileko datuak

PAPERA (Atezaintza, Idazkaritza eta Dekanotza)

APIRILA	MAIATZA	EKAINA
21.500 orri	33.500 orri	17.500 orri

Azken sei hilabeteetan haxe izan da paperaren kontsumoa:



Apirilean, Fakultatearen jarduera ez da izaten hain handia, udaberriko oporrenegatik. Horrek paperaren kontsumoa murrizten du. Maiatzean, ordea, kontsumo handiago dago, azterketa garaia delako. Ekainean, klaserik ez dagoenez, kopuruak behera egiten du.

KARTUTXOAK/TONERRA (Atezaintza, Idazkaritza eta Dekanotza)

	BIGARREN HIRUHILEKOA
Inprimagailuen kartutxoak	16 ale
Funtzio askotako fotokopiagailuen tonerra	0 ale

Oraingoz, bigarren lauhilekoan, ez da beharrezkoa izan funtzio askotako fotokopiagailuen tonerra aldatzea. Inprimagailuen kartutxoetan, berriz, guztira 16 ordezkatu dira, aurreko hiruhilekoan baino 8 gehiago.

ONTZIAK/PLASTIKOA (Fakultatea)

APIRILA	MAIATZA	EKAINA
39,5 kg	84 kg	42 kg

Kg = kilogramoak (paper litro 1 = 0.32 kg, eta plastiko litro 1 = 0,05 kg)



Energia elektrikoa

2014ko hobekuntza planean, energia elektrikoaren kontsumoa murrizteko helburua finkatu dugu. Izan ere, uste dugu ohitura aldaketa txikiekin eta beste neurri batzuekin guztion artean energia horren kontsumoa murriztu ahalko dugula.

Energia-mendetasuna

Euskadin kontsumitzen dugun energia ia guztia kanpotik dator. Hau da, energia-mendetasun handia daukagu. Azken **energia-datuen urteko txostenak**, Energiaren Euskal Erakundeak (EVE) argitaratuak, azaltzen duenez, kanpoko energia-mendetasuna % 94,5 da, EB-ko herrialde gehienena baino askoz ere handiagoa (% 53,8).

Mendetasun maila txikiena duten herrialdeak petrolioa eta gas naturala produzitzen dituztenak (Erresuma Batua eta Danimarka), energia berriztagarriak dituztenak (iparraldeko herriak) eta energia nuklearra dutenak (Frantzia eta Suedia) dira. Euskadin energia primarioaren ekoizpenak (energia berriztagarriena, gaur egun) energia-eskaeraren % 5,5 asetzen du.



Energia elektrikoa

Energia elektrikoa sortzeko zenbait iturri erabiltzen dira. Euskadin, EVEaren 2012ko txostenaren arabera, sortutako energia elektrikoaren % 6,3 bakarrik dator energia berriztagarrietatik. Horrek esan nahi du energia elektrikoa sortzen dutenak **mota askotako iturriak** direla, gehienak berriztagarriak ez direnak. Energia lortzeko energia primarioko iturri ohikoenak honako hauek dira:

- 🍃 Petrolioa
- 🍃 Gas naturala
- 🍃 Nuklearra
- 🍃 Ikatza
- 🍃 Energia berriztagarriak

Energia-iturriak ekoiztearen, garraiatzearen eta kontsumitzearen ondoriozko ingurumen-kalteak hauexek dira:

- Berriztagarriak ez diren baliabideak agortzea. Gaur egungo energia-iturri gehienak ez dira berriztagarriak. Agortzeko arriskua dute. Horrek etorkizuneko belaunaldietan inpaktua izango luke.
- Atmosferako emisioak. Energiaren ekoizpena, garraioa eta kontsumoa atmosferako emisioen iturri dira gaur egun: karbono dioxidoa, sufre eta nitrogeno oxidoak, metanoa, karbono monoxidoa, metal astunak, esekitako partikulak eta klorofluorokarbonoak, eta abar.
- Uraren eta lurzoruauren kutsadura. Era berean, ura eta lurzoruak kutsatzen dituzten isurketak egiten dira, gizakien osasuna eta ekosistemak kaltetuz.
- Hondakinen sorrera. Energiaren ekoizpenak eta kontsumoak hondakin solidoak sortzen dituzte, ingurumenaren gaineko inpaktu handiak ekiditeko tratatzen direnak, baina tratamendu zail eta garestiak dituztenak. Hondakin erradioaktiboak arazo bereziki garrantzitsua dira.
- Lurraren erabilera. Energiaren ekoizpenak, garraioak, biltegiatzeak eta kontsumoak lurren okupazio garrantzitsua eskatzen dute, eta beste erabilera batzuk lekuz aldatzera behartzen dute.

Ba al dakizu...?

Erabiltzen ari garenean 100 watteko bonbilla arrunt batek puxika bete CO₂ sortzen du ordu erdiro.


Goritasun-lanpara batek kontsumitzen duen energia guztitik % 20a bakarrik bihurtzen da argi; gainerako % 80a berotasuna da eta alferrik galtzen da.

“Stand by” kontsumoa Europako kontsumoaren % 11 da. Gailu bakoitzean 10 watt inguru galtzen dira orduro.

Kontsumo txikiko bonbillek goritasun-lanparek baino hamar aldiz gehiago iraun dezakete.

Girotea: udan, gradu bat jaisteak energiaren kontsumoa % 8 gehitzen du. Neguan gradu bat igotzeak energiaren kontsumoa % 10 gehitzen du.

Windows eta Macintosh sistema eragileek 'Energy Star' izeneko sistema daukate, ordenagailuak “egonean” jarri ahal izateko, oso energia gutxi kontsumitzeko. Kalkulatzen dugu horrela ordenagailu bakoitzeko 100 euroraino aurreztu ahal direla urtean.



Monitoreak ekipoaren energia-kontsumoaren % 70a gastatzen du.

Monitore batek, batez beste, 60 watt erabiltzen ditu piztuta, 6,5 watt egonean, eta watt 1 itzalita.

Hozkailua energia gehien kontsumitzen duen etxeko tresna elektrikoa da. Etxebizitzako kontsumo elektriko osoaren % 20raino izan daiteke, eguneko 24 orduetan eta urteko 365 egunetan dagoelako piztuta. Haren kokalekuak eta erabilerak energia-kontsumoan eragina daukate. Hozkailuko antzigar edo izotzezko geruzak isolamendu bat sortzen du, energia-kontsumoa % 20 edo 30ean areagotu ahal duena.



Eta zer egin dezaket nik?

Argiztapena:

Balia zaitez eguneko argiaz. Soilik beharrezko argiak piztu.

Amata itzazu argiak ikasgeletatik eta aretoetatik ateratzean, ondoren erabiltzeko asmorik izan ezean. Salbuespena: gelara 15 edo 20 minutu baino lehenago itzultzeko asmorik izanez gero, hobe da argiak piztuta uztea..

Eser zaitezte multzoka eta ikasgelaren aurrealdetik hasita (eta ez ausazko kokapen sakabanatu batean). Ohitura xume horren bidez zenbaitetan ez da beharrezkoa izango ikasgelaren atzealdeko argiak piztea.

Ekipo elektriko eta elektronikoen erabilera: ekipo ofimatikoak (ordenagailuak, inprimagailuak, fotokopiagailuak), laborategiko ekipoak etab:

Prestatu itzazu tresnak energia aurrezteko moduan.

Prestatu ezazu monitorearen automatikoki itzaltzeko 10 minutuz erabili gabe egon ondoren.

Zure monitorean pantaila-babesa edukitzeko aukera eginez gero, beltz-kolorekoa aukeratu (beste diseinu batzuek energia gehiago kontsumitzen baitute).

Amata ezazu erabat ordenagailua 30 minutu baino gehiagoko urrunaldietan.

Amata ezazu ordenagailuaren monitorearen urrunaldi guztietan, "stand by" delako egoera ekiditearren.

Deskonekta itzazu tresna elektrikoak (ordenagailua, faxa, fotokopiagailua, proiektagailua, kargagailu mugikorra) erabiltzeari uzten diozunean.


Itzali anplifikadore, ordenagailu, kainoi eta bestelakoak gelatik irtetean.

Eraginkortasun energetikoa daukaten aparatuak erosi.



Iturriak:

-  <http://www.fundaciongasnaturalfenosa.org/SiteCollectionDocuments/Publicaciones/Fichas%20Pedag%C3%B3gicas/A1/ficha%20A1.pdf>
-  <http://www.eve.es/CMSPages/GetFile.aspx?guid=f4f2599f-07ee-4792-9540-23fa28bb3eee>
-  <http://www.minetur.gob.es/energia/balances/Paginas/Index.aspx>
-  <http://www.reduceuse.co.uk/energy-facts>
-  <http://www.donostia.org/info/ciudadano/materiales/quienes.nsf/fwhome?ReadForm&idioma=cas&id=A501610420151>



Hemen proposatutako ideien bat gauzatu nahi baduzu eta ez badakizu nola egin, edo iradokizun, ideia edo proposamenen bat baldin badaukazu, jar zaitez gurekin harremanetan honako helbide elektroniko honetara zuzenduta:

gkz.ekoscan@ehu.es

Mesedez, ez inprimatu buletin hau, pantailan ikusteko diseinatuta dago. Papera eta tonerra/tinta aurrez ditzagun!

